

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure enpresak balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentzen eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan ezinbestekoa da funtsezko jarduerak zehaztea. Gure enpresak ezinbestekoak dituzten jarduerak hauek enpresak aurrera egin dezan eta irabaziak lor ditzagun. Gainera, jarduerak hauek guk geuk burutuko ditugu eta ez ditugu inoiz kanpoko enpresen eskuetan utziko.

Gure kasuan, enpresaren funtsezko jarduerak ekoizpena da, kosmetiko ekologiko eta beganoak disenatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betebeharrak izango baitugu. Hala eta guztiz ere, gure produktuen dendetan salgai egon arren, enpresaren webgune ofiziala edukiko dugu. Hortaz, oso garrantzitsua da web-orrialdea, hots, online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduerak ere. Gainera, interesgarria litzateke gure produktuak erakargarriagoak izan daitezen, publizitate kanpainak bultzatzea. Beraz, garrantziari erreparatuz modu honetan sailka genitzake InnMaster Cosmetics enpresaren funtsezko jarduerak:

1. Kosmetiko begano eta ekologikoen diseinua eta ekoizpena.
2. Bezeroei produktuak eskura jarri eta entregatu (dendetan eta web orrialdean).
3. Webgunea egunertatu, kudeatu eta mantendu.
4. Publizitate kanpainak burutu.